

### **HIZKUNTZEN GAINEKO POLITIKA**

*Gizarte eleanitz batean bizi garen aldetik, eta lan-merkatuak Harrobia Ikastolako komunitateari demandatzen dion eleaniztasuna enpleagarritasuna hobetzeko gakoa izaki, Harrobia Ikastolak etorkizun hurbilean datozkion erronkei aurre egin eta hizkuntzak modu integral eta integratu batean lantzeari eutsi nahi dio.*

*Hori dela eta, Harrobia Lanbide Ikastolak honako konpromisoak hartzeko prestutasuna erakutsi nahi du:*

- 1. Hizkuntza Proiektua komunitate osoa integratzen duten partaide guztiak bere baitan hartuko ditu.*
- 2. Hizkuntza Proiektuan, arlo guztietan komunikatzeko tresna nagusia izango bada ere, gaztelera eta ingelesa modu integral eta integratu batean landuko dira, horretarako xede komunikatiboak, baliabideak eta ebaluazio-adierazleak ezarriz. Hala, zikloetako programazioetan hizkuntzen trataera islatzen dela bermatuko du.*
- 3. Hizkuntza Proiektuan komunitateko partaide guztiek dituzten hizkuntza-eskubideak bermatuko dira. Euskara egoera diglosikoaren hizkuntza gutxitua denez, zaintza berezia mereziko dute euskararen aldeko hautua egiten duten pertsonen eskubideek.*
- 4. Hizkuntza Proiektuan euskararen normalizazioari lehentasuna emango zaio; sentsibilizazioa komunitate osoari zabalduz eta esparruan esparruko planak eginez.*

*Hau horrela izan dadin, Harrobia lanbide Ikastolak berrezko deritzon baliabideak ezarriko ditu.*

*Eta hau nonahi eta zernahitarako ager dadin, gaur, asteazkena 2016ko ekainaren 29an, izenpetzen du:*



**FERNANDO GARRIGÓS GABILONDO**  
**HARROBIA IKASTOLAKO ZUZENDARI JAUNA**